

Iñigo Aranburri

Telefono gakotua

B

esteak beste burokraziaren zatarrak agerian utzi zuelako zaigu eder Kafka. – Ados bazaude, pultsa 1. Ez bazaude, pultsa 2.

Prozesuan, bakarrik dago xehatzen duen dolorean gizakia. *Gazteluak* larderia-
ren neurria du. Horra giza kondizioa, Sar-
treri bide erakusle: mundura egotzia, lan
egin, besteekin bizi eta hil beharra. Eta
propina: larria administrazioaren logika-
ren aurrean.

Luzea dute Euskadi Sariak itzala, arra-
tsaldekoa. Banatu dira hauek ekitaldi ofi-
zialean, ekarri dira prentsako lerroburue-
tara joan ez izanak, atera dira argitara
gutun eta iritzi gehiago eta, politikoa da
mintzo: “aztertzen ari gara nola aldatu eta
hobetu”. Burrunbada lasaia, hor dago.

– Ados bazaude, pultsa 1. Ez bazaude,
pulsa 2.

Utikan manifestuak zertara-
ko balio izan duen, orain
hobeto ikusten dut. Puntu
batzuetan, garbi dago, ez ginen
nahi bezain zorrotz ibili; beste
batzuetan, aldiz, garbiago diot,
motz geratu ginen.

Manifestuak badu, ikusten
da, berotik. Generoarena du
datu objektiboak aldaba nahi
duen ahokadarekin uztartzea-
rena. Norberaren liburueta-
ren ez bezala, idazle eta itzultzaile
askorena den sentipena pape-
rera biltzeko, antze handia
behar da, eta ez da beti asmatzen. Sinatzaile-
leen artean ere, denok ez genuen arrazoi
berberengatik eman gure izena idatzi
barrenean. Baina plantoarekin guztiongan
zegoen sariaz urteetan pilatutakoa plazara-
tzeko gogoa, literatura gizartean gaiaz
kezka, nik dakit ba, sistemaz, kanonaz,
erakundeen eginbeharrak edota idazlearen
erabileraz; eta nola ez, sariek betetzen
duten funtzioa ez ezik, nola eta zeren ara-
bera ematen diren ere, hizpide nahi.

Hori da administrazioak eraman ezin
duena. Ez Euskal Autonomia Erkidego-
koak, ez inongoak. Manifestuek beren hiz-
kera duten bezalaxe du berea aparatu
burokratikoak. Kritikei irainez erantzute-
ko beti dago, kintzena tarteko, nor bidali.



DANI BLANCO

Petardoa sartu guk? Okerreko bidea har-
tuta ere, ezin makurrik aitortu, egiaren
baino izenaren beldurrez. Nola onartuko
dugu gauzak oker egiten ditugun aldiro?
Makinak beti behar du dirdiratsu, merezi
du: Jaurlaritza euskal letren alde. Larderia
horrexen aurrean inurri bezain gizaki sen-
titzen zelako idatzi zuen Kafkak.

– Ados bazaude, pultsa 1. Ez bazaude,
pulsa 2.

Pentsatzekoa zen manifestuaren ondo-
ren gehixeago zainduko zirela besterik ez
bada hainbat alderdi, neurri batean zarata-
tsuak isilarazteko, diot. Ikusi dugu. Koldo
Izagirrek salatu zuen aurrea prentsan,
Jon Alonsok gero. Txikikeria formal bat,
logikaren erakusgarri baina. Haur eta
Gazte Literaturan aukeratuak izan zirela
jakinarazi zitzairen. Jaurlaritzak, bi hilabe-
teotan, ez du zuzendu ez
onartu enegarrena, Helduen
kategoriari zegozkiola izen-
dapanak.

Bestalde, publikoki uko
egin eta hala ere hautatu egin
zituztela?

– Uko egiten segitzen
baduzu, pultsa 1. Bestela,
pulsa 2.

“Nola aldatu, nola hobetu
aztertzen ari gara”. Benetan,
ez dago zer eginik. Bi hizkera
dira azken beltzean bekoz
beko daudenak. Literatura ez
ezik gizartea bera ulertzeko

manera bi. Telefono konpainiara deitzen
duzunean bezala, elkarrizketa etsigarria,
robot bestaldean:

– Ados bazaude, pultsa 1. Ez bazaude,
pulsa 2.

Eta nik ez bata eta ez bestea, deitzen
dudala ez ezer negoziatzeko, nola ba,
motza naizela liburu onenarena ulertzeko
aitortzeko baizik; besteak beste jakiteko
nola neurtzen diren eleberriak poemekin
eta ipuinak saioekin; esateko ez zaidala
gustatzen satisfazioaren kultura honetan
idazleak missen gisa erabiltzea; idaztea eta
idazlea bestela ulertzen ditudala, nik.

Ados bazaude, pultsa 1. Ez bazaude,
pulsa 2.

Eta akituta, telefonoa gakotu dut. ■

Utikan manifestuak zertarako balio izan
duen, orain hobeto ikusten dut. Puntu
batzuetan, garbi dago, ez ginen
nahi bezain zorrotz ibili; beste batzuetan, aldiz,
garbiago diot, motz geratu ginen